

HEMEROTEKA

Herri mugimendu berri asko ari dira jaiotzen munduan demokrazia parlamentarioa baino parte-hartze handiagoa eskatuz. Horien aurrean, alderdi gisa funtzionatu duen ezker tradizionala nola kokatu den aztertu du Emilio Pizocaró kazetari espainiarrak Crónica Popular webgunean.

Ezkerra siestatik jaiki zenean, iraultza bertan zegoen

Emilio Pizocaró

◆ Kazetaria

ORAIN DELA urte batzuk Alain Badiou filosofo frantziarrak, gertakariei aurrea hartuz, tesi ausarta eskaini zuen: XXI. mendea iraultza demokratikoz beteta dator. Norabide berean egin du gogoeta David Harveyk *Hiri errebeldeak: hiri-eskubidetik kaleko iraultzara* liburuan.

Brasilgo eta Turkiako manifestazioek berresten dute Badiou eta Harvey ez dabiltzala oker. Historiako beste momentu batzuetan bezala, txinparta txiki batek herriaren haserre piztu du planetako leku ugartan. Espelikazioen unera iritsita analista serio guztiek sokeneko arrazoi bera sumatzen dute: herriek parte-hartzea exijitzen dute. Ez daude prest ordena liberalaren aurpegi anitzeko gobernu pasibotasunez onartzeko.

Ezker tradizionalako burokrasiak harrituta agertu dira fenomeno horien aurrean. Ez da harritzekoa. Espainian, Brasilen bezala, M15 mugimendua sortu zenean ezkerreko zenbait buruzagik konfiantza gutxirekin erantzun zuten. Gertatzen da gure ezker zaharra lo luzeko siesta egiten ari zela. Supituki eskuineko begia ireki zuenean, ez zen falta izan matrize stalinistako paper-kakazlerik mugimendua gutxiesteko; ez zen falta izan intelektualik gertakari kultural iragankortzat jotzeko; ez zen falta izan CCOOko buruzagirik ultraeskuineko konplota ikusten zuela esateko.

Ezker zaharra ez da konturatu iraultzailea izango den garai baten atarian gaudela. Mobilizazio

handi hauek lehenbiziko probakats ekintzak dira herrientzat. Indarrak neurtzen ari dira finantza-kapitalaren zerbitzuko kasta politikoekin.

Bide horretan ezin da alde aurretik baztertu hauteskundeetan parte-hartzea. Besterik da pentsatzea hori dela medio bakarra eta garrantzitsua. Gertakariei bizkarrarema da hori, ez konturatzea egungo sistemak zilegitasun demokratiko guztia galdu duela. Arrazoi du Manuel Castells irakasleak esaten duenean aldaketa “mugimendu matxinatu” eskutik etorriko dela eta ez ezker zaharraren egituretatik, ez baitaukate pentsamendu estrategiko iraultzailerik.

Ezker zaharra ez da konturatu iraultzailea izango den garai baten atarian gaudela

Egoera berri honetan, zabalduko ote du ezkerreko begia ezker instituzionalizatuak? Aterako al da hauteskundearen lozortik? Egia esateko, sinesgarria izan nahi baldin badu, mahaian jarri beharko ditu ez kupo parlamentario batzuk bakarrik, eraldaketa iraultzaile demokratikorako taktika eta estrategia baizik. Momentuz, Joaquín Miras eta Joan Tafallari jarraituz, geroz eta gehiago dira uste dutenak ezker zaharra soluzioa baino, arazoa dela. ■



BERTSO BERRIAK

Nagore Laffage



XDZ

Miren Amuriza Plaza



Doinua: Gogoan daukat ez du aspaldi.

Gaztelu plaza jendez gainezka, txapliguen oihartzuna, kea lainotu eta badoa Iruñeatik Iruna.

Jaien atzean bosgarren urtez samina daiteke suma, gogoratzean abuztuaren zazpigarrena duguna, ezezko batek heriotza bat eragin zuen eguna. (bis)

Hiltzaileari eskua eman zion Nagorek azkenez, baina Yllansek besoa hartu nahi zuen dirudienez. Neskak ukatu eta askatzeko eskatu arren mesedez, sutan dagoen zezena hitzez geratu ezin den legez, bazapiztia bilakatu den gizonezkoa ere ez. (bis)

Basapiztia horiek gure oihua entzun bezate: begirakune lizun arrotzak ez ditugu maite bape, ez dugu onartzen eztabaida bat bilakatzea gerrate, ez zaplasteko, ez labankada, ez mehatxu, ez atake... Eta batez be, ez dugu etsiko zuok desagertu arte! ■